

Euskaldun eztea

Goragarria dogu
erlearen lana,
loreartean, bizkor,
egaz dabillena.
Ez dau gogoan artzen
lore edertasuna,
ezta nekegarrizko
bide luzeana,
ajola jako soillik,
ezti barriena.

Bizitza luzerako
bear da osasuna,
ta osasuna eukiteko,
bear odol ona.
Odol ona izateko,
garbi ta txukuna,
eztea dogu beti,
janik ontsuena,
bizi garan artean,
zainduko gaituna.

Eskerrik asko, zuri,
erletxu maitea,
duban damozulako,
gozozko jakia.
Zugandik, zorionez,
dogu ikasia,
euskaldunak izanaz,
euskera zaintzia,
euskera izan dadin
euskaldun eztea.



MUNETXE
Bil-2013-03-21

